

Neguko limoiak, udaberriko sagardo

Atzo egin zen Sagardo Berriaren Eguna, Alorrean. Izaro Andres abeslariak ireki zuen urteko lehenengo kupela, «gure sagardo berria» oihukatuz. 'Limonas en invierno' diskoa kaleratuko du laster.

ASTIGARRAGA TXOTX IREKIERA

Atzo eguerdiko 12:00ak aldera hasi zen Sagardoetxean antolatutako aurkezpen ekitaldia. Bertan, 2020ko sagardoaren ezaugarri nagusiak azaldu zituzten, aurreko urteko sagarra eta sagardoaren inguruko azalpen garrantzitsuenak ere gaineratuz.

Bertan izan ziren, Xabier Urdangarin alkatea eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria; sagardogileen ordezkariak; eta Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak.

Aurkezpena amaituta, Izaro Andres abeslariak sagarrondo bat landatu zuen, sagardoetxearen ondoko sagastietan eta ondoren Alorrean abiatu ziren txotx irekiera egitera. 13:30ak aldera hasi zen sagar dantza eta, soka dantza ere egin zuten; Izarok ere hartu zuen parte bertan. Sokarekin, abeslaria lehenengo kupelera gerturatu zen, eta «gure sagardo berria» oihukatuz ireki zuen txotxa.

Arratsaldean, haurrentzako jolasak egon ziren, eta helduek, Pintxotx musikatuak egin zuten. **K**



Izaro Andres abeslariak ireki zuen txotx denboraldia, «gure sagardo berria» probatuta.

'Apaga la luz y verás' gaur eta bihar, Biterin

Atzo, 'Ez, eskerrik asko!', Gladysen leihoa izan zen nagusi Biteriko pantailan, eta asteartean arazo teknikoak zirela eta, ez zen pelikularik jarri.

HERNANI ZINEMA ZIKLOA

Gaur eta bihar, *Apaga la luz y verás* pelikula jarriko dute Biterin, arratsaldeko 20:00etan hasita, Euskal Zinema Zikloaren barruan.

Asteartean, arazo teknikoak

Asteartean hastekoa zen Zinema Zikloa, *Paseko Txoriak* filmarekin, baina ez zen horrela izan, arazo teknikoak izan baitzi-

tuzten dokumentala jartzerako garaian. Udalak, barkamena eskatu nahi izan du, bertaratu zirenei zuzenduta gehienbat.

Astearteko arazo teknikoa alde batera utzita, atzo; *Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa*, jarri zuten Biterin.

Gaur eta bihar, berriz, Zinema Zikloko azken pelikula jarriko dute; *Apaga la luz y verás*, arratsaldeko 20:00etan. **K**



Ibon Casasen borrokaren lekuko da gaurko eta biharko dokumentala.



Bi bilera Aranon, etzi

ARANO INATUERIAK ETA GUIFINET

Bi bilera izanen dira larunbatean Aranon: aurrenekoa, goizeko 11:00etan izanen da eta inauteriak antolatzeke batzordean oinarrituko da. Eguerdiko 12:00etan izanen da bigarren bilera, Guifinet proiektuari buruzkoa, hain zuzen. Biak Maisuenean egingen dira.

Odol ematea bihar, Inmakuladan

HERNANI INMAKULADA

Bihar arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara bitartean, Inmakulada Ikastetxean odol ematea antolatu da, eta horretarako odol emaeleak behar dituzte. Parte hartzeko deia luzatu dute, gainera «amaitzean bokatak banatuko» dituzte.

Bihar eta etzi, zinea

HERNANI ZINEA

Bihar, *Dios mio, ¿pero que hemos hecho ahora?* pelikula jarriko dute, gaueko 22:30etan, Biterin. Etzi, berriz, hiru saio egongo dira; arratsaldeko 16:30etan *Jumanji* jarriko dute, eta 19:30 eta 22:30etan, *Dios mio, ¿pero que hemos hecho ahora?*, berriz.

Bi antzezlan, asteburuan

ASTIGARRAGA ANTZERKIA

Asteburu honetan, bi antzerki egongo dira: larunbatean, *Benditas* eta ingandean, *Aioko*. *Benditas* antzerkirako sarrerak 6 euro balio ditu eta txikienentzat, 3 euro. *Aioko* antzezlanak, berriz, 5 euroko prezioa du, eta txikienentzat 2,5 eurokoa.

Ideien zaparrada gaur, Gaztelekuan

HERNANI GAZTELEKUA

Gaur ideien zaparrada egingo da Gaztelekuan eta bihar Henna tailerra.



oialume zar
sagardotegia
www.oialumezar.com
Mikel Arozamena 16, ASTIGARRAGA tel. 943 55 29 38

Urtarrilaren 17an irekiko ditugu ateak
Asteartetik larunbatera gauz Ostirala eta larunbata bazkariak ere bai
ONGI ETORRI!

GAUR Gaur hedoldeko haizea izango dugu hizpide. Haizeak temperatura igoarazi egingo du eta hodeitza aldaketa eragingo du horrek. Eta baliatze egunaren amaieran tanta batzuk botatzea. **Min.9° / Max.18°**

BIHAR Bihar eguraldia erabat aldatuko da, haizea bizi ibiliko da, eta horrek fronte hotz bat ekarriko du. Zaparrada giroa nagusituko da, eta haize hotzarekin tenperaturak jaitsi egingo dira. **Min.8° / Max.11°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Baso eskolari buruz, gaurko saioan

Gaur arratsaldeko 17:30etan, Hezkuntza Eskola antolatu da udaletxeko areto nagusian.

HERNANI HEZKUNTZA ESKOLA

Gaur arratsaldeko 17:30etarako, Hezkuntza Eskola antolatu da, udaletxeko areto nagusian.

Oraingo hontean, Langile ikastolako irakasle diren Agurtzane Rama eta Maite Ezpona izango dira, eta hainbat azalpenen artean, Langileko ikastolan martxan jarri den baso eskolaren poriektuari buruz jardungo dira, eta proiektu honi



Hilero egiten dira Hezkuntza Eskolak, Hezkuntza Plataformak antolatuta.

buruzko zalantza eta galderei erantzuteko prest daude, noski.

Ohiko moduan, haurren zaintza zerbitzua eskainiko da. Beraz bertaratzeko deia luzatu

nahi dute Hezkuntza Eskola-koek. Animatzeko asmoa izanez gero, gaur arratsaldeko 17:30etan, udaletxeko areto nagusira azaltzeko dei egin dute. **K**



Asteartean, hainbat elkarte eta lagun bildu ziren Euskaraldiko aurkezpenean.

Norbanakotik taldera, garrantzitsua da euskeraren erabilera

Asteartean egin zen Euskaraldiaren aurkezpena eta bertan 2020erako asmoak azaldu zituzten.

HERNANI EUSKARALDIA

Asteartean 2020eko Euskaraldiari buruzko aurkezpena egin zuten, eta orain arte prestatzen ari direnaren berri ere eman zuten.

Duela bi urteko kontuak aipatu ziren aurkezpenean: «2018ko Euskaraldia, urte osoan zehar egin zen eta erronketan oinarritu ginen». Pertsona bakoitzak, bere erronkak jarri eta hauek betetzea zen helburua. «Beraz, urte honetan, pauso bat aurrera egin behar genuela iruditu zitzaigun eta 2020rako Euskaraldia antolatzen hasi ginen, beti ere euskera sustatzeko helburua oinarri hartuta». Hori

dela eta, 2020rako Euskaraldiak, norbanakoaren erabilera sustatzeaz gain, taldekoa bultzatu nahi du, «bakoitzak bere taldean euskeraren erabilera eragitea nahi dugu». Beraz, urte honetan dinamika hori erabiliko da, banakakoa eta taldekoa «biak bateratu eta Euskaraldia sortzeko, Hernanin».

Bi euskera elkarte, bat eginik

Duela bi urte, Euskara Ari Du elkarteak antolatu zuen Euskaraldia, eta aurten, Doberak hartu du lekukoa, bi euskera elkarteek bat eginik. Beraz, «urte honetan Euskaraldia, Doberaren eskutik eta Doberaren

barruan etorriko da», azaldu zutenaren arabera.

2020ko Euskaraldiak, 3 fase

Lehenengo fasean, entitateekin harremanetan jarri, «aurreko urteetan parte hartu zuten eta prestutasuna eskaini ziguten horietan», eta urte amaiera arte konpromezua hartu nahi duten talde horietan egingo dute kontaktua. Behin hau lotuta, bigarren fasea hasiko da, bertan erabakiko dute elkarte bakoitzari zein ekimen dagokion. «Euskaraldiak asmoa dauka 15 aldiko epeak egiteko, egitasmoa egiteko» baina Hernanin eta beste herri batzuetan, «3 hilabeteko lan bat egitea erabaki dugu», lehenago lanketa bat eginda, noski. Eta hirugarren fasean, orain arte konprometitu diren elkarteekin lanketa egingo da, baina «norbanakoekin ere landuko dugu». **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JOSE MARIA ETXEBERRIA AGIRRE

Atzo hil zen, 85 urte zituela

- Goian Bego -

Emaztea: Manoli Arrozpide; seme-alabak: Agurtzane eta Felix, Virginia eta Ugutz; bilobak: Ander, Asier eta Joseba; zaintzailea: Iris; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 16an

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 18:30ak arte.

JOXE MARI ETXEBERRIA AGIRRE

Mila esker aitona gure gidari izan zarela eta izaten jarraituko duzulako

ANDER, ASIER ETA JOSEBA

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 16an

JOXE MARI ETXEBERRIA AGIRRE

Nola laburtu zuk emandako guztia?

MANOLI, TXARO ETA VIKI

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 16an

ESKERTZA Antonio Luis Polaina Ortega

(Andoni)
Orain egun gutxi hil zen

Antonio Luisen Belen emazteak, Borja semeak eta familia osoak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 16an

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak **TELEOPERADORA LANPOSTU** bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta portugesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.

LOGIKALINE enpresak **TELEOPERADORA LANPOSTU** bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta katalana eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

Tripontzi jatetxea
PINTXOK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724